4. Lanbidearen izena: Su-esmalteak egitea.

— Artisauaren izendapena: Su-esmalteen egilea.

— Definizioa: Azalera metalikoak esmalteekin dekoratzen dituen pertsona da. Esmalteak labeko fusioz itsasten dira, eta horretarako teknika ugari daude: champlevé, albeolatzea (cloisonné), limosina eta erliebea, besteak beste.

5. Lanbidearen izena: Ezpatak egitea.

— Artisauaren izendapena: Ezpatagilea.

— Definizioa: Aho ebakitzaile paralelo bi eta heldulekua duten altzairuzko arma zuriak diseinatu, egin eta zaharberritzen dituen pertsona da.

6. Lanbidearen izena: Forja eta errementaritza.

— Artisauaren izendapena: Forjaria/errementaria.

— Definizioa: Burdin hesiak, balkoi jarraituak, ateak, barandak, altzariak, etxeko objektuak eta beste produktu tradizional edo artistiko batzuk diseinatu, egin eta konpontzen dituen pertsona da. Lehengai bezala burdina edo beste metal batzuk erabiltzen ditu.

7. Lanbidearen izena: Galdaketa artistikoa.

— Artisauaren izendapena: Galdatzaile artistikoa.

— Definizioa: Moldeak eta metal urtua erabiliz zenbait objektu artistiko diseinatu eta egiten dituen pertsona da.

8. Lanbidearen izena: Latorrigintza.

— Artisauaren izendapena: Latorrigilea.

— Definizioa: Latorrizko elementu apaingarri eta funtzionalak diseinatu eta egiten dituen pertsona da. Horretarako, latorrizko pieza fin-finak moztu, tolestu, moldatu eta soldatzen ditu. Horrek luzarorako bermatzen du euskarriaren irmotasuna, edo amaierako ontziaren estankotasuna.

11. **Material reciclado**

1. Denominación del oficio: Elaboración de objetos diversos con material reciclado.

— Denominación de la persona artesana: Elaborador/a de objetos reciclados.

— Definición: Persona que diseña y elabora objetos diversos como mobiliario auxiliar, iluminación, complementos, etc. a partir de diversos materiales reciclados sometidos a un proceso original para que se vuelvan a utilizar de forma única y provechosa.

12. **Metal**

1. Denominación de oficio: Calderería.

— Denominación de la persona artesana: Calderero/a.

— Definición: Persona que diseña, elabora y repara recipientes de cobre, latón o hierro, usados en la actualidad principalmente como elementos decorativos y funcionales.

2. Denominación del oficio: Cuchillería y navajería.

— Denominación de la persona artesana: Cuchillero/a y navajero/a.

— Definición: Persona que con hierro o acero, diseña, elabora o repara piezas cortantes de un solo filo y prepara la empuñadura de los mismos con diversos materiales, pudiendo ser no metálicos.

3. Denominación del oficio: Damasquinado.

— Denominación de la persona artesana: Damasquinador/a.

— Definición: Persona que se dedica al diseño y elaboración de adornos en piezas de hierro u otro metal con filamentos de oro o plata, para su embutido en ranuras o huecos.

4. Denominación del oficio: Elaboración de esmaltes al fuego.

— Denominación de la persona artesana: Esmaltador/a al fuego.

— Definición: Persona que decora superficies metálicas aplicando esmaltes, que se adhieren por medio de la fusión en horno, pudiendo utilizar varias técnicas, como el campeado (champlevé), el alveolado (cloisonné), limosín y relieve, entre otros.

5. Denominación del oficio: Elaboración de espadas.

— Denominación de la persona artesana: Espadera/o.

— Definición: Persona que diseña, elabora y restaura armas blancas de acero con dos filos paralelos cortantes y empuñadura.

6. Denominación del oficio: Forja y Herrería.

— Denominación de la persona artesana: Forjador/a y Herrera/o.

— Definición: Persona que diseña, elabora y repara o restaura verjas, balconadas, portones, barandillas, mobiliario, objetos de uso doméstico y otros productos tradicionales o artísticos, empleando como materia prima el hierro u otrosetales.

7. Denominación del oficio: Fundición artística.

— Denominación de la persona artesana: Fundidor/a artístico/a.

— Definición: Persona que diseña y elabora, mediante moldes y metal fundido, diversos objetos artísticos.

8. Denominación del oficio: Hojalatería.

— Denominación de la persona artesana: Hojalatero/a.

— Definición: Persona que diseña y elabora elementos decorativos y funcionales, mediante el corte, plegado, moldeado y soldado de finísimas piezas de hojalata, garantizando por mucho tiempo de uso la firmeza del soporte o la estanqueidad del recipiente final.

cve: BAO-BOB-2014a079

13. **Papera eta kartoia**

1. Lanbidearen izena: Kartoi eta harri-kartoizko objektuak egitea.

— Artisauaren izendapena: Kartoi-egile artistikoa.

— Definizioa: Kutxak, edukiontziak edo objektu artistikoak diseinatu eta egiten dituen pertsona da. Horretarako kartoia erabiltzen du, edo harri-kartoia, eszenatokiak, erakusleihoak, mozorroak, maskarak eta abar egiteko.

2. Lanbidearen izena: Koadernaketa.

— Artisauaren izendapena: Koadernatzailea.

— Definizioa: Liburuak eta koadernoak diseinatu, egin eta zaharberritzen dituen pertsona da. Horretarako, paperezko orriak kolaz itsatsi eta josten ditu, eta estalkiak jartzen dizkie.

14. **Lurringintza eta kosmetika**

1. Lanbidearen izena: Lurrinak eta kosmetikoak egitea.

— Artisauaren izendapena: Lurrin eta kosmetiko egilea.

— Definizioa: Krema eta esne hidratatzaileak, pomadak, ukendu hidratatzaileak, lozioak eta lurrinak modu naturalean egiten dituen pertsona da. Horretarako, belardiko landareak eta produktu naturalak erabiltzen ditu.

15. **Harria, marmola eta eskaiola**

1. Lanbidearen izena: Eskaiolazko objektuak egitea.

— Artisauaren izendapena: Eskaiolazko objektuen egilea.

Definizioa: Moldura apaingarriak egiteko edo beste objektu batzuk husteko moldeak ateratzeko eskaiola —igeltsu errearen eta uraren nahastea— diseinatu eta moldatzen duen pertsona da.

2. Lanbidearen izena: Harria eta marmola zizelkatzea.

— Artisauaren izendapena: Harri eta marmol zizelkaria.

— Definizioa: Tresna tradizionalak erabiliz harrian eta beste harri-material batzuetan zizelkatutako obrak diseinatu eta egiten dituen pertsona da.

16. **Larrua**

1. Lanbidearen izena: Larrua lantzea.

— Artisauaren izendapena: Larru-lantzailea.

— Definizioa: Zenbait teknikaren bitartez —modelatzea, grabatua, tindatzea, bozeltzea, etab— pieza apaingarri eta funtzionalak sortzeko larrua diseinatu eta lantzen duen pertsona da.

2. Lanbidearen izena: Zahatoak eta zahagiak egitea.

— Artisauaren izendapena: Zahato-egilea/Zahagi-egilea.

— Definizioa: Ondutako edo ondu gabeko larru edo azal malguekin likidoak —normalean ardoa edo olioa— gordetzeko ontziak diseinatu eta egiten dituen pertsona da. Ontziei forma biribilduak ematen dizkie, eta animaliaren larruaren propietateak mantentzen ditu.

3. Lanbidearen izena: Akerraren edo ahuntzaren larru ondua eta ondutako marrazkidun larrua egitea.

— Artisauaren izendapena: Akerraren edo ahuntzaren larru ondu eta ondutako marrazkidun larru egilea.

— Definizioa: Ondutako larruak diseinatu eta lantzen dituen pertsona da. Erliebeak, marrazkiak eta trazeriak egiten dizkie, eta ondoren —batzuetan— pintura apaingarriak ematen dizkie. Batez ere, erabilera artistikorako urre- eta zilar-xaflak erabiltzen ditu, eta horiekin zur finezko altzariak estaltzen ditu, edo koadroak egiten ditu.

13. **Papel y cartón**

1. Denominación del oficio: Elaboración de objetos de cartón y cartón piedra.

— Denominación de la persona artesana: Cartonero/a artístico/a.

— Definición: Persona que diseña y elabora objetos como cajas, contenedores u objetos artísticos utilizando cartón para su configuración o escenarios, escaparates, disfraces, mascaras, etc. utilizando cartón piedra.

2. Denominación del oficio: Encuadernación.

— Denominación de la persona artesana: Encuadernador/a.

— Definición: Persona que diseña, elabora y restaura libros y cuadernos mediante el encolado y cosido de hojas de papel, dotando al conjunto de cubiertas.

14. **Perfumería y cosmética**

1. Denominación del oficio: Elaboración de perfumes y cosméticos.

— Denominación de la persona artesana: Elaborador de perfumes y cosmética.

— Definición: Persona que elabora cremas hidratantes, leches hidratantes, pomadas y ungüentos hidratantes, lociones y perfumes de forma natural empleando para ello plantas del campo y productos naturales.

15. **Piedra, marmol y escayola**

1. Denominación del oficio: Elaboración de objetos de escayola.

— Denominación de la persona artesana: Elaborador/a de objetos de escayola.

— Definición: Persona que diseña y modela escayola, (yeso calinizado amasado con agua), para hacer molduras de adorno o sacar moldes para vaciar otros objetos.

2. Denominación del oficio: Talla de piedra y mármol.

— Denominación de la persona artesana: Tallista de piedra y mármol.

— Definición: Persona que diseña y elabora obras esculpidas en piedra y otros materiales pétreos, mediante el uso de herramientas tradicionales.

16. **Piel y cuero**

1. Denominación del oficio: Corioplastia.

— Denominación de la persona artesana: Corioplasta.

— Definición: Persona que diseña y trabaja la piel mediante técnicas como el modelado, grabado, tintado, repujado, etc. para obtener piezas decorativas y funcionales.

2. Denominación del oficio: Elaboración de botas y odres.

— Denominación de la persona artesana: Botero/a-Corambrero/a.

— Definición: Persona que diseña y confecciona, con cueros o pellejos flexibles, curtidos o sin curtir, recipientes para contener líquidos, normalmente vino o aceite, dándole formas redondeadas y manteniendo las propiedades de la piel del animal.

3. Denominación del oficio: Elaboración de cordobán y guadamecil.

— Denominación de la persona artesana: Elaborador/a de cordobanes y guadamecíes.

— Definición: Persona que diseña y repuja pieles adobadas o curtidas con relieves, dibujos y tracerías (cordobán) que pueden admitir una decoración posterior de pinturas decorativas y, especialmente, panes de oro y plata (guadamecil), que tienen un uso artístico y decorativo, con las que se forran muebles de madera fina o se realizan cuadros.

cve: BAO-BOB-2014a079

4. Lanbidearen izena: Zapatak egitea.
— Artisauaren izendapena: Zapataria.
— Definizioa: Zapatak diseinatu eta egiten dituen pertsona da.

5. Lanbidearen izena: Uhalgintza.
— Artisauaren izendapena: Uhalgilea.
— Definizioa: Gurdiei tiratzeko, zaldi gainean esertzeko edo gurdiak kargatzeko zaldiei jartzen zaizkien uhalak eta elementuak diseinatu, egin eta konpontzen dituen pertsona da. Ezpatentzako larruzko gerrikoak eta beste uhal mota batzuk ere egiten ditu.

6. Lanbidearen izena: Larrukigintza.
— Artisauaren izendapena: Larrukigilea.
— Definizioa: Larruzko edo ahuntz-larruzko artikuluak —besteak beste, diru-zorroak, poltsak, zigarro-kaxak, eta maletak— diseinatu, egin eta dekoratzen dituen pertsona da.

7. Lanbidearen izena: Larrugintza.
— Artisauaren izendapena: Larrugina.
— Definizioa: Berokiak edo erabilera pertsonalerako artikuluak diseinatu eta egiten dituen pertsona da. Horretarako, animalien ile naturala mantenduz ontzen diren larru finak erabiltzen dira.

17. **Zaharberritzea eta kontserbazioa**

1. Lanbidearen izena: Zaharberritzea.
— Artisauaren izendapena: Zaharberritzailea.
— Definizioa: Besteak beste, artelanak, altzariak, ehunak, monumentuak eta objektu baliotsuak kontserbatu, konpondu eta lehengoratzen dituen pertsona.

18. **Taxidermia**

1. Lanbidearen izena: Taxidermia.
— Artisauaren izendapena: Taxidermista.
— Definizioa: Ornodun animalia hilekin konposizio apaingarriak diseinatzen dituen pertsona da. Animaliak disekatu egiten ditu, haien bizi-itxura mantentzeko. Jatorrizko forma berreskuratzeko, euskarri zurrun batek eusten dituen larruak betetzen ditu.

19. **Ehunak**

1. Lanbidearen izena: Alfonbrak egitea.
— Artisauaren izendapena: Alfombra-egilea.
— Definizioa: Hariekin alfonbrak diseinatu eta egiten dituen pertsona da. Horretarako, eskuzko ehundegi bat erabiltzen du, eta irazki batean bilbatutako hariak korapilatzen ditu.

2. Lanbidearen izena: Ehun osagarriak egitea.
— Artisauaren izendapena: Ehun osagarrien egilea.
— Definizioa: Ehun eta fibrez baliatuz erabilera pertsonalerako osagarriak diseinatu eta egiten dituen pertsona da.

3. Lanbidearen izena: Brodatuak eta zulo-bordatuak egitea.
— Artisauaren izendapena: Brodatzailea edo zulo-bordatuen egilea.
— Definizioa: Ehun azalera batean harizpia edo beste material batzuk gainean jartzen dituen pertsona da. Batzuetan hariak ateratzen ditu, teknika desberdinen bitartez, lortu nahi den pieza apaindu eta aberasteko.

4. Lanbidearen izena: Parpailak egitea.
— Artisauaren izendapena: Parpailagilea.
— Definizioa: Azalerak estaltzeko material ugaritako harizpiak diseinatu eta konbinatzen dituen pertsona da. Horretarako, ez dauka beste euskarrien beharrik: ziri-parpaila, kako-orratzezko parpaila, makramea, sarea, puntua, orratz-parpaila, frivolité…

4. Denominación del oficio: Elaboración de zapatos.
— Denominación de la persona artesana: Zapatera/o.
— Definición: Persona dedicada al diseño y confección de calzado.

5. Denominación del oficio: Guarnicionería y Talabartería.
— Denominación de la persona artesana: Guarnicionero/a y Talabartero/a.
— Definición: Persona que diseña, elabora y repara correajes y demás efectos que se ponen a las caballerías para que tiren de los carruajes o para montarlas o cargarlas, y también realiza talabartes y otros correajes.

6. Denominación del oficio: Marroquinería.
— Denominación de la persona artesana: Marroquinero/a.
— Definición: Persona que diseña, confecciona y decora artículos de piel o tafilete, como carteras, bolsos, petacas, maletas, etc

7. Denominación del oficio: Peletería.
— Denominación de la persona artesana: Peletera/o.
— Definición: Persona que diseña y confecciona prendas de abrigo y artículos de uso personal con pieles finas, que se curten conservando el pelaje natural del animal de origen.

17. **Restauración y conservación**

1. Denominación del oficio: Restauración.
— Denominación de la persona artesana: Restaurador/a.
— Definición: Persona que conserva, repara y recupera obras de arte, muebles, tejidos, monumentos y objetos de valor, entre otros.

18. **Taxidermia**

1. Denominación del oficio: Taxidermia.
— Denominación de la persona artesana: Taxidermista.
— Definición: Persona que diseña composiciones decorativas con animales vertebrados muertos, a los que diseca para conservarlos con apariencia de vivos, restaurando la forma original mediante el relleno de sus pieles soportadas en un armazón rígido.

19. **Textil**

1. Denominación del oficio: Elaboración de alfombras.
— Denominación de la persona artesana: Alfombrero/a.
— Definición: Persona que diseña y realiza alfombras, con diversas hilaturas, haciendo uso de un telar manual y anudando hilos entramados en una urdimbre.

2. Denominación del oficio: Elaboración de complementos textiles.
— Denominación de la persona artesana: Elaborador de complementos textiles.
— Definición: persona que diseña y elabora complementos de uso personal confeccionados a partir de tejidos y fibras.

3. Denominación del oficio: Elaboración de bordados y calados.
— Denominación de la persona artesana: Bordador/a o calador/a.
— Definición: Persona que, partiendo de una superficie de tejido va sobreponiendo una hebra u otros materiales o va deshilando utilizando distintas técnicas, con la finalidad de adornar y enriquecer la pieza final que se vaya a obtener.

4. Denominación del oficio: Elaboración de encajes.
— Denominación de la persona artesana: Encajero/a.
— Definición: Persona que diseña y realiza el trabajo de combinar hebras de diversos materiales para cubrir superficies, sin necesidad de un soporte previo (encaje de bolillos, encaje de ganchillo, macramé, malla, tricote, encaje de aguja, frivolité…)

cve: BAO-BOB-2014a079

5. Lanbidearen izena: Jantziak egitea.

— Artisauaren izendapena: Jantzien egilea.

— Definizioa: Jantziak diseinatu eta josten dituen pertsona da.

6. Lanbidearen izena: Tapizak egitea.

— Artisauaren izendapena: Ehulea.

— Definizioa: Hariekin tapizak diseinatu eta egiten dituen pertsona da. Horretarako, eskuzko ehundegi bat erabiltzen du, eta irazki batean bilbatutako hariak korapilatzen ditu.

7. Lanbidearen izena: Etxerako ehunak egitea.

— Artisauaren izendapena: Etxerako ehunen egilea.

— Definizioa: Ehun eta fibrez baliatuz etxerako ehunak diseinatu eta egiten dituen pertsona da.

8. Lanbidearen izena: Jantzi tradizionalak egitea.

— Artisauaren izendapena: Jantzi tradizionalen egilea.

— Definizioa: Eskualdeko janzkeraren tradizioen arabera jantziak diseinatu eta egiten dituen pertsona da.

9. Lanbidearen izena: Ehun-estanpazioa.

— Artisauaren izendapena: Ehun-estanpatzailea.

— Definizioa: Zuzenean aurretik jositako ehunen gainean estanpazioko teknika desberdinak erabiliz motiboak diseinatu eta egiten dituen pertsona da.

10. Lanbidearen izena: Irutea.

— Artisauaren izendapena: Irulea.

— Definizioa: Zuntz-malutak hari bihurtzen dituen pertsona da.

11. Lanbidearen izena: Tapizgintza.

— Artisauaren izendapena: Tapizgilea.

— Definizioa: Azalerak telaz edo antzeko materialez estalita diseinuak eta dekorazioa egiten dituen pertsona da.

20. **Beira**

1. Lanbidearen izena: Beira-dekorazioa.

— Artisauaren izendapena: Beira-dekoratzailea.

— Definizioa: Zenbait teknikaren bitartez beira dekoratzen duen pertsona da. Horretarako, pinturak, esmalteak, grisailak eta harea erabiltzen ditu.

2. Lanbidearen izena: Beira luzatzea.

— Artisauaren izendapena: Beira-luzatzailea.

— Definizioa: Beira (beira-hagak) moldatzen duen pertsona da. Beira berotu eta pintzekin luzatzen du, forma apaingarriak emateko.

3. Lanbidearen izena: Beirate artistikoak egitea.

— Artisauaren izendapena: Beirate artistikoen egilea.

— Definizioa: Metalean —beruna edo kobrea— sartutako beirazko xafla koloreztatuak erabiliz dekorazio figuratibo edo abstraktuak diseinatu eta egiten dituen pertsona da.

4. Lanbidearen izena: Beirazko piezak egitea.

— Artisauaren izendapena: Beiragilea.

— Definizioa: Beirazko piezak diseinatu eta egiten dituen pertsona da. Horretarako, beira beroa, castinga eta/edo termoformatzearen teknikak erabiltzen ditu.

5. Lanbidearen izena: Beira apaindua egitea.

— Artisauaren izendapena: Beira apainduaren egilea.

— Definizioa: Kolorezko beiraz egindako objektuak diseinatu, egin eta dekoratzen dituen pertsona da. Horretarako zenbait teknika erabiltzen ditu, besteak beste, fusinga.

5. Denominación del oficio: Elaboración de prendas de vestir.

— Denominación de la persona artesana: Elaborado/a de prendas de vestir.

— Definición: Persona que diseña y confecciona prendas de vestir.

6. Denominación del oficio: Elaboración de tapices.

— Denominación de la persona artesana: Tejedor/o.

— Definición: Persona que diseña y realiza tapices con diversas hilaturas haciendo uso de un telar manual y anudando hilos entramados en una urdimbre.

7. Denominación del oficio: Elaboración de textil del hogar.

— Denominación de la persona artesana: Elaborador/a de textil del hogar.

— Definición: persona que diseña y elabora artículos textiles de uso en el hogar confeccionados a partir de tejidos y fibras.

8. Denominación del oficio: Elaboración de trajes tradicionales.

— Denominación de la persona artesana: Elaborador/a de trajes tradicionales.

— Definición: Persona que diseña y confecciona prendas de acuerdo a las tradiciones de la indumentaria regional.

9. Denominación del oficio: Estampación Textil.

— Denominación de la persona artesana: Estampador/a textil.

— Definición: Persona que diseña y realiza motivos directamente sobre telas, previamente tejidas, empleando para ello diferentes técnicas de estampación.

10. Denominación del oficio: Hilado.

— Denominación de la persona artesana: Hilandero/a.

— Definición: Persona que partiendo de una fibra en copo la convierte en hilo.

11. Denominación del oficio: Tapicería.

— Denominación de la persona artesana: tapicero/a.

— Definición: Persona que diseña y decora recubriendo distintas superficies con telas u otra materia similar.

20. **Vidrio**

1. Denominación del oficio: Decoración de vidrio.

— Denominación de la persona artesana: Decorador/a de vidrio.

— Definición: Persona que decora vidrios mediante distintas técnicas con la utilización de pinturas, esmaltes, grisallas y arenado.

2. Denominación del oficio: Estirado de vidrio.

— Denominación de la persona artesana: Estirador/a de vidrio.

— Definición: Persona que moldea el vidrio (varillas de vidrio) calentándolo y estirándolo con pinzas para realizar formas decorativas.

3. Denominación del oficio: Elaboración de vidriera artística.

— Denominación del sujeto artesano: Elaborador de vidriera artística.

— Definición: Persona que diseña y realiza decoraciones, figurativas o abstractas, con planchas de vidrio coloreadas encajadas en metal (plomo o cobre).

4. Denominación del oficio: Elaboración de piezas de vidrio.

— Denominación del sujeto artesano: Vidriera/o.

— Definición: Persona que diseña y elabora piezas en vidrio a través de la técnica de vidrio caliente, casting y/o termoformado.

5. Denominación del oficio: Elaboración de vidrio decorado.

— Denominación de la persona artesana: elaborador/a de vidrio decorado.

— Definición: Persona que diseña, elabora y decora objetos en vidrio de color mediante distintas técnicas como por ejemplo el fusing.

cve: BAO-BOB-2014a079

6. Lanbidearen izena: Beira puztua egitea.

— Artisauaren izendapena: Beiraren putz-egilea.

— Definizioa: Beirazko piezak diseinatu eta egiten dituen pertsona da. Horretarako, beira beroaren teknika erabiltzen du; beira-pasta galdatua burdinazko kanabera luze baten bitartez puzten du. Kopak, botilak edo edalontziak egiten ditu, besteak beste.

7. Lanbidearen izena: Beira lantzea.

— Artisauaren izendapena: Beira-zizelkaria.

— Definizioa: Beirazko piezak diseinatu, apaindu eta dekoratzen dituen pertsona da. Horretarako, tornuaren ehotarriaren gainean maneiatzen du beira, baita maleta eta korindoiekin ere. Zizelkatzerakoan irudi bat egiten du, eta, batzuetan, ondoren margotu egiten du.

(I-791)

6. Denominación del oficio: Elaboración de vidrio soplado.

— Denominación de la persona artesana: Soplador/a de vidrio.

— Definición: Persona que diseña y elabora piezas en vidrio a través de la técnica de vidrio caliente, soplando la pasta vítrea, fundida, a través de una larga caña de hierro hueca. Ejemplo de estas piezas son las copas, botellas o vasos, entre otras.

7. Denominación del oficio: Talla de vidrio.

— Denominación de la persona artesana: Tallista de vidrio.

— Definición: Persona que diseña motivos ornamentales y decora piezas de vidrio, manipulando el vidrio sobre la muela del torno, maletas, corindón… formando un dibujo al tallar que a posteriori también puede ser coloreado.

(I-791)

•

## Lehendakaritza Saila

**Lanpostuen zerrendaren aldaketa (2014/04/15)**

— Ondoren aipatzen den lanpostuari zerbitzua emateko lantokia aldatzea, adierazten denaren arabera:

## Departamento de Presidencia

**Modificación de la relación de puestos de trabajo (15/04/2014)**

— Modificar el Centro de Trabajo asignado al Puesto de Trabajo que a continuación se indica, en el sentido que se señala:

| Lanpostua / Puesto de trabajo | | | Aurreko lantokia<br>Centro de trabajo anterior | Lantoki berria<br>Centro de trabajo actual |
|---|---|---|---|---|
| Kod.<br>Cód. | Izena<br>Denominación | Dot.<br>Dot. | | |
| 2040 | Nekazaritzako Eskualdeko Unitateko Arduraduna<br>Responsable de Unidad Comarcal Agraria | 003 | 1200 — Durangoko N.E.B.<br>O.C.A. Durango | 500 — Lehendakari Agirre, 9 Eraikina<br>Edificio Lehendakari Aguirre, 9 |

— «Lanpostuen zerrendan egin beharreko aldaketak, «Bizkaiko Foru Aldundian Euskararen Erabilera Normalizatzeko bosgarren plangintza-eperako Plana» onartzearen ondorioz hizkuntza arloan eginiko aldaketetara egokitzeko» erabakiko (2013ko abenduaren 23an onartu zen) okerren zuzenketari buruz 2014ko martxoaren 11n hartutako erabakiaren lehenengo zenbakia aldatzea; hain zuzen ere, «4007/040 – Suhiltzaile-gidaria» lanpostua ez da sartu behar 2013ko abenduaren 23an onartutako erabaki horren II. eranskinetik kendu beharreko lanpostuen zerrendan, eta, beraz, lanpostu horri dagokionez, eranskin horretan jasotzen diren hizkuntzaren arloko baldintzak mantendu behar dira, hau da:

— Modificar el apartado Primero del Acuerdo de 11 de marzo de 2014 sobre «Corrección de Errores al Acuerdo sobre «Modificación de la Relación de Puestos de Trabajo para su adecuación a las modificaciones en materia lingüística derivadas de la aprobación del «Plan de Normalización del Uso del Euskera de la Diputación Foral de Bizkaia durante el Quinto Periodo de Planificación»» aprobado el 23 de diciembre de 2013», en el sentido de no incluir el Puesto de Trabajo «4007/040 – Bombero/a Conductor/a» entre los Puestos de Trabajo a eliminar del Anexo II del Acuerdo aprobado el 23 de diciembre de 2013 al que se ha hecho referencia, manteniéndose en consecuencia para el mismo, los requisitos en materia lingüística recogidos en el citado anexo, es decir:

| Lanpostua / Puesto de trabajo | | | | HE/PL<br>Dot | Derrig. data<br>Fecha precept. |
|---|---|---|---|---|---|
| Organikoa<br>Orgánico | Kod.<br>Cod. | Dot.<br>Dot. | Izena<br>Denominación | | |
| 72111 | 4007 | 40 | Suhiltzaile-Gidaria<br>Bombero/a-Conductor/a | 2 | 2016/12/31<br>31/12/2016 |

Bilbon, 2014ko apirilaren 15ean.—Lehendakaritza Saileko Foru Diputatua, Unai Rementería Maiz

(I-795)

Bilbao, a 15 de abril de 2014.—El diputado foral de Presidencia, Unai Rementería Maiz

(I-795)

•

**Kontratu baten lizitaziorako iragarkia: Bizkaiko Foru Aldundiaren aseguru pribatuen barruko aseguru pertsonalen polizen zerbitzu-kontratua.**

1. *Erakunde adjudikatzailea*

Datu orokorrak eta informazioa eskuratzeko datuak:

a) Erakundea: Bizkaiko Foru Aldundia.

b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Kontratazio Zerbitzua.

**Anuncio de licitación del contrato de servicios de pólizas de seguro privado, seguros personales, de la Diputación Foral de Bizkaia.**

1. *Entidad adjudicadora*

Datos generales y datos para la obtención de la información:

a) Organismo: Diputación Foral de Bizkaia.

b) Dependencia que tramita el expediente: Servicio de Contratación.

cve: BAO-BOB-2014a079